

Iñaki Mendiguren

ITZULTZAILEA ♦



DANI BLANCO

Etxebarrieta, Pardines, Oteiza eta Egiguren

JESUS EGIGURENEK bere azken liburuan, Arantzazuri buruz ari dela, hauxe dio: “Zirrara eragin zidan han esan zidatenak, hots, –Oteizak– bere maisulan ezagunena, Jesus lurrean gorpu eta halakorik gertatzen uzteagatik Ama Birjina Jainkoa madarikatzen ari denekoa, ETak lehenengo hilketa –Pardines guardia zibilarena– egin zuen egun berean amaitu zuela, eta Oteizak esan zuela: ‘Eskultura hau Pardinesi eskaintzen diot, bera da lurrean datzan Jesus, eta Ama Birjina Pardinesen ama da, halako bidegabeke-riagatik Jainkoari errieta egiten ari dena’” (*Ven y Cuéntalo. El oasis vasco*).

Niri harridura Egigurenen adierazpenak eragin zidan, hain justu ere beti kontrakoa entzun izan dudalako, hau da, Arantzazun hamalau apostoluen gainean dagoen *Pietatea* Txabi Etxebarrietari eskaini ziola Oteizak 1968an. Ez dut uste honetaz zalantza handirik dagoenik (ikus Pelay Orozco: *Oteiza. Su vida, su obra, su pensamiento, su palabra*, 516. or.). Beraz, nola liteke egitate berari buruz hain bertsio kontrajarriak sortzea gure artean? Nondik atera du Egigurenek bertsio hori? Ez dut uste bera gezurretan edo asmak-erietan dabilenik. Arantzazun esan diotela? Ba, ez da Arantzazun normalean ematen den azalpena.

*Niri harridura
Egigurenen
adierazpenak eragin
zidan, hain justu ere
beti kontrakoa entzun
izan dudalako*

Orduan? Niri bi gogoeta sortzen dizkit istorio nahasi honek:

1. ETaren sorreratik gaur arte gertatuaren kontakizun objektibo samar bat egiteko dauden zailtasunak. Izan ere, batzuek azken urteotako ikuspegitik nahi lukete irakurri ETaren historia osoa eta konplexua; eta beste batzuk erosoago daude pentsa-tuz hasierako ETA hura berbera izan dela azkeneraino iritsi zaiguna.

2. Baina agian profetiko edo metaforiko samarra da Oteizak Arantzazun utzi zuen eskulturari buruzko nahasmen hau. Beharbada, Arantzazuko ama hori bien ama izango da, bai Etxebarrietarena eta bai Pardinesena, eta ez batena ala bestearena, biek (biktima guztiek) izan dituztelako ama sufritzaileak, eta guztien amak aritu direlako, ez dakit Jainkoari, baina bai politikari, agintari, eragile eta gainerako herritarroir agiraka, hemen hainbeste urtetan gertatu dena lehenago ez konpontzeagatik! Hau ulertzea lagungarri izan liteke adiskidetzeko bidean. Azkenean ez ote zuen horixe adierazi nahi izan Oteizak berak geroago 90eko hamarkadan biei, Txabiri eta Pardinesi, Tolosaldean oroigarrri bana eskaini zienean? ■



DANI BLANCO



**Itxaro
Borda**



IDAZLEA

Gizon festa

EZ DUT zalantzan jarriko Alkain, Galartza, Plazaola eta Euzkitzeren dohain anitza ETB1ko ikuslegoa irriz lehertarazteko orduan, beraien *Kontrako eztarritik* emankizunarekin. Duda izipirik ez dago. Txalotzekoa da. Gainera gustatzen zait, txantxak zenbaitetan lodixkak suertatu arren, gure hizkuntzan berean entretenitu nazaten eta Artikoko haizez hanpatu nire izpiritu bete erraza kitzika diezadaten. Publiko nahikoa ona naiz.

Hogeita hamar minutuz, zaga-zaga, lau mutiko airos eta gotor, barreak nondik nora zulatuko duen asmatzen jarraitzea aski neketsua dela erantsi behar dut ordea.

Bereziki pantailan emazterik ez delako agertzen. Ez ote da antzezle emerik aurkitzen herri honetan, duela lau hamarkada Zuberoako pastoraletan bezala gizonetzkoak emaztez transbeztitzera behartu gabe? Ala, gizonetzkoek genero bien eremua arraileriak berdinduz, giz-arte total(itario) baten ametsa dauka euskal munduak emakumea *invisible* eginez?

Egoeraren aldatu ezinak nau harritzen. Euskal Herriko kultura alorreko gizon-festa endogamiko-koa Carla Bruni Miarritzen abesten entzutea bezain *ringard* dela deritzot jadanik. ■

